



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2017KO UZTAILAREN 27AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui (19:10etik aurrera)
Irati Ozaita Azpiroz
Arkaitz Fraile Quijera
Maria Iciar Jauregui Huarte
Victoria Rodriguez Feloaga
Eleuterio Sanchez Garcia
Juan Luis Cid Conde
Cristina Goya Amiama
Lourdes Leunda Mendizabal (Kontuhartzailea)

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA :

Arantza Arrue Etxeberria

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeita zazpian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta behin-behineko idazkari lanetan Arantza Arrue Etxeberria.

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2017ko maiatzaren 25ean egindako ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena**
- 2.- 186/2017tik 290/2017ra Alkate Dekretuak jakinaraztea**
- 3.- 2016 urteko ekitaldiko Kontu Orokorra eta ondare aurrekontua onartzea**
- 4.- Udal eskumeneko zerbitzuak edo administrazio jarduerak egiteagatik tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa 2017-2018 ikasturterako.**
- 5.- 2017 urteko langileen ordainsarien igoera**

2017/07/27



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.- Apattako Plan Partzialaren Ordenantzako 31. Artikuluaren indargabetzea

7.- Eh Bildu Koalizioak aurkezturiko mozioa: Etxez-etxeko laguntza Zerbitzua

12.- Galde-eskaerak

LEHENA:

2017KO MAIATZAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko maiatzaren 25eko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (5 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko maiatzaren 25eko ohiko bilkurako akta

BIGARRENA:

186/2017TIK 290/2017RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2017ko maiatzaren 25etik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen , 186/2017tik 290/2017ra.

Honako dekretuak baliorik gabekoak deklaritzen dira, Gizarte Zerbitzuetako diru-laguntzak emateko organo eskuduna Gobernu Batzordea baita.

- 270/2017
- 264/2017
- 263/2017
- 262/2017
- 261/2017
- 260/2017

2017/07/27



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 259/2017
- 258/2017
- 257/2017
- 256/2017
- 255/2017
- 254/2017
- 253/2017

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

HIRUGARRENA:

2016. URTEKO KONTU OROKORRA ETA ONDARE KONTUAREN ONARPENA

Ikusi da espedientea.

Kontuan izanda 21/2003 Foru arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako Aurrekontuei buruzkoak, 63 art.an dioena betez, Kontuen batzorde bereziak txostena egin ondoren, 2017ko maiatzaren 4an, jendaurrean jarri zen 2016ko Udalaren Kontu Orokorra.

Argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2017ko maiatzak 12, 90 zk.) eta udalaren ediktu-oholean. Ez da aurkeztu erreklamazio nahiz oharrik.

2017ko uztailaren 12an egindako Kontuen eta Ogasunaren Batzorde Bereziaren irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (5 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea 2016ko ekonomia ekitaldiari dagokion kontu orokorra eta ondare kontua.

BIGARRENA: Espedientearen kopia bidaltzea Kontuen Euskal Epaitegira.

LAUGARRENA:

UDAL ESKUMENENKO ZERBITZUAK EDO ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA 2017-2018 IKASTURTERAKO

Ikusi da espedientea.

2017/07/27



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Alkateak proposatu du egungo tarifak mantentzea 2017-2018 ikasturterako bai kultur lantegietan, bai kirol eskoletan eta baita ikastaro berezietan udal lokaletan ere, kontuan izanda EAeko KPIren aldaketa 2016eko uztailaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra. Horrez gain, proposatu du, kirol ikastaroen prezioak aldatu ez arren, ikastaroak bi alditan kobratzea: lehena 2017ko azaroan eta bigarrena 2018ko martxoan.

Bestalde kirol ikastaroetako aplikazio arauen 2. eta 3. puntuak aldatu egingo dira. Horiek I eranskinean jaso dira.

Kontuan izanda 7/1985 legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 49, 70.2 eta 111 art.etan eta Toki erregimenaren arloko Testu Bateginak 56 art.an xedaturikoa,

2017ko uztailaren 21an egindako Kontuen eta Ogasunaren Batzorde Bereziaren irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (5 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Hasierako onarpena ematea udal eskumeneko zerbitzuak edo administrazio jarduerak egiteagatiko honako tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari: 2017-2018 ikasturterako kultura lantegiak, kirol eskolak eta ikastaro bereziak udal lokaletan.

2017-2018 Kirol ikastaroei dagokionez, prezioak aldatuko ez diren arren, ikastaroak bi alditan kobratuko dira: lehena 2017ko azaroan (%50) eta bigarrena 2018ko martxoan (%50). Bestalde, kirol ikastaroetako 2. eta 3. aplikazio arauak aldatu egiten dira. Horiek I eranskinean jaso dira.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea interesatuen entzunaldira hogeita hamar eguneko epean eta iragarki taulan nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 16.1, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak 16.1 art.an xedaturikoari jarraiki interesdunek alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA: Alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betikotzat joko da udal eskumeneko administrazio jarduerak edo zerbitzuak emateagatiko tasaren aldaketa.

ERANSKINA

B.- UDAL-ESTABLEZIMENDUETAKO IKASTARO BEREZIAK

B.1. KULTURA LANTEGIAK

2017/07/27



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Tarifak:

Ikastaro laburrak (asten bi ordu)	66,75 €
Ikastaro luzeak, (egun bat) astean bi ordu	87,89 €
Ikastaro luzeak, (bi egun) astean lau ordu	175,29 €

B.2. KIROL ESKOLAK

Urteko Tarifak:

1. Bazkideak

Pilates	204,10 €
Gimnasia 3. adinekoentzat	Doan
Yoga	198,03 €
Cycling	204,10 €
Abdominal hipopresiboak	102,04 €
Eskalada	204,10 €
Zumba	204,10 €
Judo	204,10 €

2. Bazkide ez direnak

Pilates	281,18 €
Gimnasia 3. adinekoentzat	Doan
Yoga	281,18 €
Cycling	281,18 €
Abdominal hipopresiboak	140,58 €
Eskalada	281,18 €
Zumba	281,18 €
Judo	281,18 €

Aplikazio arauen aldaketak

2. eta 3. aplikazio arauen idazkera berria:

2017/07/27



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- Ikastaroak bederatzi (9) hilabetekoak dira. Urrian hasiko dira eta ekainean amaituko. Izena ematen dutenak behartuta daude ikastaroaren zenbateko osoa ordaintzera.

3.- Ikastaroak bi alditan kobratuko dira, lehena 2017ko azaroan (%50) eta bigarrena 2018ko martxoan (%50), interesatuek emandako kontu korrontean.

B.3 IKASTARO BEREZIAK UDAL LOKALETAN

B.3.1 GURASO ESKOLA

Urritik ekainera bitarteko ikastaroa (9 saio):. Matrikula: 66,43 €.

BOSGARRENA: **2017 URTEKO LANGILEEN ORDAINSARIAREN IGOERA**

Ikusi da ekainaren 27ko, 3/2017 Estatuko Aurrekontu Orokorreko Legeak, 18. Artikuluaren, bigarren atalean ezartzen duela 2017. urtean ezin izango direla sektore publikoko pertsonaleko ordainsariak %1 baino gehiago igo.

Kontuan hartuta erabateko arduraldia duten udalbatzako kideen ordainsariari buruz 3/2017 Estatuko Aurrekontu Orokorreko Legeak 32. Xedapen gehigarrian dioena eta 1/2015 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 30ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehazten dituena.

2017ko uztailaren 17an egindako Langileen batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho batez, 10 aldeko botorekin (5 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Igotzea %1 udaleko langileen eta erabateko arduraldia duten udalbatzako kideen ordainsaria 2017rako.

BIGARRENA: Berriazko osagarriaren puntuen balioa %1 igotzea eta 2017rako 20,40 eurokoa izango da.

(19:10 direnean Jon Mikel Iglesias Otegui bertaratu da udalbatzaren bilerara)

2017/07/27



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

SEIGARRENA:

6. APATTAKO PLAN PARTZIALAREN ORDENANTZAKO 31. ARTIKULUA INDARGABETZEA

Mahai gainean geratzen da.

ZAZPIGARRENA:

EH BILDU KOALIZIOAK AURKEZTURIKO MOZIOA: ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

EH Bildu Koalizioak honako mozioa aurkezten du Udalbatzaren aurrean, honek onar dezan:

MOZIOA:

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua

- 1.- Ibarra Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua pertsonaren zaintzarako ezinbesteko zerbitzua dela aldarrikatzen du, besteak beste, pertsona bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko bermatzen laguntzen duelako.
- 2.- Ibarra Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren garapen zein hobekuntzaren aldeko aldarria egiten du.
- 3.- Ibarra Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egiten dio udalekin adostu dezala honako konpromiso bikoitza:
Gipuzkoako Aldundiaren aldetik, udalei baimentzen dien ordu kopuruan eta ordu horiei dagokien finantzaketan murrizketarik ez ezartzeko konpromisoa.
Udalen aldetik, zerbitzua hobetzeko eta zabaltzeko neurriak aztertu eta ezartzeko konpromisoa; halaber, langileei lan baldintza duinak bermatzekoa.

Iciar Jauregui EAJ-PNVko zinegotziak adierazi du EAJ-PNVko zinegotziak ez daudela ados mozio honen 3. Puntuarekin. Eskaera hori egitekotan, horretarako jada osatuta dagoen mahaiari eskatu beharko litzaiokeela, eta bestalde, ez dagoela finantzaketa edo orduen murrizketarik, baizik eta gauzak aldatu egin direla, baina ez murriztu.

Ixiar Arratibel BILDUKo zinegotziak erantzun du esanez, udal zerbitzua izan arren, ezin zaiela udalei transferitu, zerbitzua bermatzeak eskatzen duen finantzaketa doiketaren gainean, eta Aldundiak jada murrizketa agindu duela.

Udalbatzak, 5 aldeko botorekin (BILDU) eta 5 abstentzioekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

2017/07/27



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENENGOA: Ibarra Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua pertsonaren zaintzarako ezinbesteko zerbitzua dela aldarrikatzen du, besteak beste, pertsona bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko bermatzen laguntzen duelako

BIGARRENGOA: Ibarra Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua garapen zein hobekuntzaren aldeko aldarria egiten du.

HIRUGARRENGOA: Ibarra Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egiten dio udalekin adostu dezala honako konpromiso bikoitza:

- Gipuzkoako Aldundiaren aldetik, udalei baimentzen dien ordu kopuruan eta ordu horiei dagokien finantzaketan murrizketarik ez ezartzeko konpromisoa.
- Udalen aldetik, zerbitzua hobetzeko eta zabaltzeko neurriak aztertu eta ezartzeko konpromisoa; halaber, langileei lan baldintza duinak bermatzeko.

LAUGARRENGOA: Jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuari.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.